



ZIZUR NAGUSIA  
**KULTUR PROGRAMA**  
MAIATZA / EKAINA / 2019



AYUNTAMIENTO DE CULTURA Zizur Mayor  
KULTUR PROGRAMATZA Zizur Nagusia

Jarrai iezaguzu ZizurArtea:  
[www.zizurmayorcultura.es/eu](http://www.zizurmayorcultura.es/eu)



# EGUTEGIA



ANTZERKIA



MUSIKA



DANTZA



HAURRENTZAKO  
DANTZA



HAURRENTZAKO  
ZINEMA

## MAIATZA

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
13	14	15	16	17	18
20	21	22	23	24	25
27	28	29	30	31	

## EGUNA

03, 04, 05

- ANTZERKIA.** "Como pez en la tierra". ZIZUR NAGUSIKO ANTZERKI TAILERRA
- 11 DANTZA.** "La soledad de Bernarda". ARANTXA VILLANUEVA CÍA DE DANZA
- 12 HAURRENTZAKO ZINEMA.** "Spider Man: un nuevo universo"
- 17 ANTZERKIA.** "Intensamente azules". ENTRECAJAS PRODUCCIONES TEATRALES
- 18 ZINEMA.** "Nata y chocolate". ZINEZIZUR
- 25 HAURRENTZAKO DANTZA.** "Euria". MARKELIÑE
- 31 ANTZERKIA.** "El funeral". TEATRO CHE Y MOCHE

## EKAINA

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

## EGUNA

- 02 MUSIKA.** SINFONIETTA ACADÉMICA
- 09 ANTZERKIA.** "Arco de iris de una paz". DORRE ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA
- 15 EKIALDEKO DANTZA.** "Diadromi" edo "διαδρομή". BHALABASA



ESKATU AURIKULARRA  
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA  
ATEZAINDEGIAN

Antolatzailea:

PATRONATO DE CULTURA  
Zizur Mayor



KULTUR PATRONATUA  
Zizur Nagusie

Diru-laguntzaileak:



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



RED DE TEATROS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
ANTZOKI SAREA



INAE  
INSTRUMENTOS  
MUSICALES

inaem

PLATE

PROGRAMA ESPECIAL  
DE ARTES ESCENICAS

Laguntzailea:



Obra Social "la Caixa"

9€

**BONUA  
LARUNBATAK  
DANTZAN**"La soledad  
de Bernarda"  
ARANTXA  
VILLANUEVA  
2019/05/11"Euria"  
MARKELIÑE  
2019/05/25

15€

**BONUA  
OSTIRALEAN  
ANTZERKIRA**"Intensamente  
azules"  
ENTRECAJAS Prod.  
2019/05/17"El funeral"  
TEATRO  
CHE Y MOCHE  
2019/05/31**PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!****GAZTE ETA IKASLE  
TXARTELA (12 urtetik 30  
urte bitartekoentzat):**4 euroko edo 4 eurotik gorako  
sarreretan %50eko murrizketa. Ez  
da aplikatuko haurrentzako  
ikuskizunetan.**Betebeharrak:** NANA eta txartela  
eguneraturik aurkeztea.**LANGABETUAK:** Doako sarrera  
bat haurrentzako zinema  
emanaldietara haurra laguntzera  
joaten den helduarentzat.**Betebeharrak:** NANA eta enplegua  
eskatzeko txartel eguneratua  
aurkeztea.**SALMENTA  
AURRERATUA****Apirilaren 25etik aurrera,  
osteguna, 9:30ean.**

- TXARTELDEGIA**
  - Astelehenetik ostiralera  
09:30 - 21:30.
  - Larunbatetan  
10:00 - 14:00  
17:00 - 21:00
  - Igande eta jaiegunetan  
12:00 - 14:00
  - Ikuskizuna hasi baino  
ordubete lehenago.
- INTERNET**  
[www.zizurmajorcultura.es/eu](http://www.zizurmajorcultura.es/eu)  
Egiaztatu zure erosketa  
eta ez ahaztu sarrera.
- INFOLOCAL 948 012 012**  
Astelehenetik ostiralera  
08:00 - 19:00

**OINARRIZKO  
ARAUAK****Puntueltasuna:** Behin ikuskizuna  
hasita, inork ez du sartzerik  
izanen aretoan.**Seinale akustikoak:**  
Deskonektatu beharko dira.**Grabazioak eta argazkiak:**  
Debekatuak daude.**Janaria eta edaria:** Debekatuak  
daude.**Dirua itzultzea:** Ikuskizuna bertan  
behera uzten denean baizik ez.**Haur ikuskizunak:** Adin  
gomendatura doitzea  
gomendatzen da.  
- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna  
adin horretarako denean baizik  
ez dute bertaratzerik izanen.  
- 3tik 7 urtera: heldu batek  
lagunduta joan beharko dute.

## MAIATZA

Ostirala, larunbata, igandea

# 3, 4, 5



## ANTZERKIA

### Como pez en la tierra

ZIZUR NAGUSIKO ANTZERKI TAILERRA

20:00

4€

60 min



Bidaia adierazkor bat proposatzen digute 27ko Belaunaldiko emakume sortzaileek ondutako testu eta biografiatan barna. Frankismoak hori guztia ezabatu zuen, eta diktaduraren ondoko

Espainiako historia kulturala ere ez zen emakume horiez arduratu; bai, ordea, erregimenak isilarazitako belaunaldi hartako artista gizonezkoek. Beraz, emakume sorta handi bat gelditu zen historiatik bazterturik, guztiak ere esparru publikoan aritutakoak XX. mendeko 20ko eta 30eko urteetan, politikan, artean nahiz kulturatan. Consuelo Berges kazetaria, Rosa Chacel idazlea, Maruja Mallo pintorea, María de Maeztu pedagogo, María Zambrano filosofoa... horra izena berreskuratu duten izen handiko emakume haietako batzuk.

Larunbata

# 11



## DANTZA

### La soledad de Bernarda

ARANTXA VILLANUEVA CÍA DE DANZA

20:00

7€

50 min



“La casa de Bernarda Alba” garaiko emakumeen eta egungoen arteko paralelismoa egin nahi da ikuskizunean. Lorcak maisuki erretrataturiko garai hartako egoera latza eta gogorra zen benetan, idazleak sentiberatasun handiz kontatutakoa. Gaur egun, zoritxarrez, bakardadeak eta indarkeriak oraindik ere lekua dute emakume askoren egunerokoan. Muntaketak Lorcaren lanaren funtsari heldu dio, testu bikain horretako 5 une adierazgarriren bidez. Koreografiak ederki bermatuak daude indar handiko gai musikaletan nahiz ikus-entzunezkoetan, guztiak ere arras zirraragarriak. Marta Juárez aktorearen ahotsa da historiaren haria.



CIRCUITO DE ARTES  
ESCÉNICAS DE  
NAVARRA

NAFARROAKO  
ARTE ESZENIKOEN  
ZIRKUITUA

LAGUNTZAILEA:



COMISIÓN DE IGUALDAD  
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN  
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA

## MAIATZA

Igandea

12



HAURRENTZAKO ZINEMA  
Gaztelaniaz

### Spider Man: un nuevo universo

18:00

3€

117 min



Miles Moralesek super-botereak eskuratu ditu, arma batek zizta egin baitio. Bi bizimolde ditu aldi berean; batetik, ohiko nerabea, eta bestetik, bazterrak begiratu eta gaiztoak harrapatzen ditu. Zorionez,

maisur handi bat dauka hurbil-hurbil: nor eta Peter Parker. Elkarrekin, eta beste mundu batzuetako Spider Man-ek lagundurik, gure bizimodua suntsitu nahi duen arrisku handi bati egin beharko diote aurre.

Ostirala

17



ANTZERKIA

### Intensamente azules ENTRECAJAS PROD. TEATRALES

22:00

12€

85 min



ES-  
TREI-  
NALDIA  
NAFARROAN



GOBIERNO DE ESPAÑA  
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE



PLATEA

PROGRAMA ESTATAL DE ARTES ESCÉNICAS

Juan Mayorga da lanaren egile eta zuzendaria. Berak esaten du bizipen bitxia dagoela lanaren atzean. Izan ere, miopea da, eta behin batean, betaurrekoak hautsi zitzaizkionez, etxekoek oparitutako igeriketa-betaurreko graduatuekin joan zen erosketa egitera. Bada, gisa hartan erosketan zebilela, batzuek esan

zuten hura probokazioa zela; beste batzuek, berriz, pentsatu zuten laguntza behar zuela; izan zen lehendabizikoz arreta egin zionik; bai eta hura pertzepzio-okerra zela pentsatu zutenik ere. Horra, beraz, bizipena antzerki bihurturik. Mayorgaren alter egoa César Sarachu da ("Cámara Café"-ko Bernardo Marín ahaztezina).

# MAIATZA

Larunbata

18



ZINEMA

## Nata y chocolate

ZINEZIZUR

20:00

2€

20 min



Kontinente ezberdineko bi neskatoren arteko istorioaren atzean arraza-bullyinga dago. Neskatoak urtero Nafarroan elkartzen dira, uda partean. Harreman kutuna lagungarria izanen zaie hazteko, heltzeko, eta bakoitzaren bizitzan dauden zoritxarrei aurre egiteko. Udan elkarrekin, gainera, Candelak eta Shairak, gure herriko historia eta ohiturak ezagutuko dituzte. Film-emanaldiaren ondotik, aktoreen eta teknikarien aurkezpena eginen da, eta ezta-baida saio labur baten ondoren, film laburreko hiru gai musikalak zuzenean joko dira.

Larunbata

25



HAURRENTZAKO DANTZA

## Euria

MARKELIÑE

20:00

4€

60 min

Adin gomendagarria:

6 urtetik aurrera



CIRCUITO DE ARTES  
ESCÉNICAS DE  
NAVARRA

NAFARROAKO  
ARTE ESZENIKOEN  
ZIRKULITUA



FETEN  
2017  
ikuskizunik  
onena

CORNEL  
TODEA  
FITC  
2018  
saria



Maite dugun norbait jadanik ez dagoenean gertatzen zaigunari buruz hitz egiten du "Euria" lanak. Eta zerbait aldatu dela ulertzeko eta onartzeko behar dugun denbora guztiari buruz. Lan honetako osagaiak ur tantak dira, aterki gorri bat, lanabes-kaxa bat, tiraderetan gordetako malkoak, 4 akrobazia, euritako

hautsi eta abandonatu bat, abesti triste baten gaineko keinu ederrak, plantxa ero bat, oroitzapenen iratzargailua, leiho bat, bai eta marraztutako eguzkia ere.

Eta azkenean, den-dena magia zahar nahasita, guk aurrera egiteko dugun gaitasuna erakusten digu.

## MAIATZA

Ostirala

31



ANTZERKIA

### El funeral

TEATRO CHE Y MOCHE

22:00

7€

100 min



Musikari ijito talde batek ikusleak gonbidatuko ditu aitona Dimitriren hiletan parte hartzera. "El Funeral" lanaren hasiera atsegin eta xume horrek ez du biderik ematen ondotik etorriko den alimaleko korapiloa sumatzeko, istorioa ederki korapilatuko baita egoera sinestezinen bidez. Pertsonaia txundigarriak, interpreteen bertuosismo

musikala, publikoarekiko elkarrekintza... Horren ondorioz, hileta-ekitaldia jai zoragarria izanen da, ustekabez eta umore ahaztezinaz betetakoa.

Mila aldiz baino gehiago eman dute, toki guztietan erabateko arrakastaz, bai estatuan, bai atzerrian, Madrilgo Gran Viako antzokietan ikusleak oro liluratu ondoren.

## EKAINA

Igandea

2



MUSIKA

SINFONIETTA ACADÉMICA

12:30

4€

60 min



Familiendako kontzertua, hari ataleko instrumentuak ezagutzera emateko (biolina, biola, biolontxelo eta kontrabaxua), bai eta haien berezitasunak eta erreperitorioa ere. Sinfonietta Académicak Bartok, Vivaldi eta Txaikovskiren lanak joko ditu, eta Alberto Itoiz txirularia arituko da bakarlari. Iruñeko Orfeoiko Eskolaniak ere abestuko du, elkarrekin erreperitorioaren lan batzuk emateko.

Igandea

9



ANTZERKIA


## Arco de iris de una paz

DORRE ELORTZIBARKO ANTZERKI TAILERRA

20:00

4€

60 min



Antzinaroko 8 emakume (greziarrak eta troiarrak) biziberritu dira, iraganean gertaturiko gerren gaineko oroitzapena egungo

mundura ekartzeko, eta horrela, gaur egunko gerrak eta sufri-  
menduak eragozteko.

Dorre Elortzibarko Antzerki Tailerrak bi iturri izan ditu oinarri: batetik, literatura, hau da, Euripidesen "Lisistrata" lana, gerraren aurkako eta emakumeek bakea bilatzeko bidean duten protagonismoaren aldeko mezua dakarrena; eta bestetik, Leymah Roberta Gbowee ekintzaile liberiarren bizi-tza, 2011ko Bakearen Nobel sariduna. Ekintzaile horrek ahotsa jartzen die gerrak pairatzen dituzten emakumeei eta indarkeria EZAREN babesle nagusiak direla aldarrikatzen du.

Larunbata

15



EKIALDEKO DANTZA


## "Diadromi" edo "διαδρομή"

BHALABASA ETA ANANDA BÚCARI

20:00

7€

90 min



Ikuskizunak ibilbide bat proposatzen digu Sabel Dantzan, Danza Tribal Fusioan eta American Tribal Style moldean barna. Azken buruan, era bateko zein besteko kultura, erritmo eta zirrarak ezagutzeko ibilbidea da ikuslearen bihotza ukitzeraino.



Dantza tradizionalenekin batera, askotariko kultur elementuetan inspiratutako fusioak ematen dira. Ikuskizuna jende guztiarentzat da. Bertan, Ananda Búcarí Bhalabasak eta artista gonbidatuek itzulerarik gabeko bidea erakutsiko digute.